



**FILOSOFIAREN HISTORIA  
(IRAKASGAI KOMUNA)**

**HAR EZAZU A AUKERA, B AUKERA EDO C AUKERA, ETA EGIN OSORIK**

**A AUKERA: ARISTOTELES**

Oraingoz nahikoa bedi adieraztea arima ondorengo ahalmen guztien printzipioa dela eta haien bitartez definitzen dela: ahalmen elikagarria, sentimenena, diskurtsiboa eta mugimendua. Baina horietako ahalmen bakoitza arima bat edota arimaren zati bat ote den auziari dagokionez eta, arimaren zati bat dela uste izanik, definizioan soilik edo baita errealitatean ere banangarria izateko moduan baldin bada, ez da zaila horietako ahalmen batzuen kasuan bereiztea, nahiz eta besteen kasuan zail samarra izan. Izan ere, landare batzuk zatitan ebaki eta zatiak elkarren artetik bananduta egon arren bizitzen jarraitzen badute ere, landare bakoitzean dagoen arima **entelekia bat** bailitza baina potentzian anizkoitza, arimaren desberdintasun jakin batzuekin ere hala gertatzen dela ikusten dugu zatituak izan diren intsektuen kasuan: zati bakoitzak, jakina, sentipena eta tokiko mugimendua ere gordetzen ditu eta, sentipenarekin batera, irudimena eta desira, sentipena dagoen lekuan oinazea eta plazerra ere baitaude, eta haiek dauden lekuan, gainera eta ezinbestean, apetitua baitago. Enteleguari eta **potentzia espekulatiboari** dagokienez, ordea, kontua ez dago batere garbi, nahiz eta arimaz bestelakoa den genero bat dirudien eta soilik bera izan daitekeen banandua betierekoa ustelgarritik den bezala. Arimaren gainerako zatiei dagokienez, aurrekotik garbi ondorioztatzen da ez direla banantzen batzuen batzuek uste duten moduan. Begien bistakoa da, ordea, definizioaren ikuspuntutik desberdinak direla: **sentimenaren zerizana eta iritzia emateko ahalmenaren zerizana desberdinak dira**, sentitzea eta iritzia ematea desberdinak diren modu berean; eta gauza bera gertatzen da aipaturiko gainerako ahalmen bakoitzarekin. Are gehiago, animalia batzuegan ahalmen guztiak bildurik daude; beste batzuegan, berriz, batzuk daude eta beste zenbaitzutan bakararra dago. Hori da animaliak elkarren artean bereizten dituen (zergatik gertatzen den aurrerago ikusiko dugu). Antzeko zerbait ere gertatzen da sentipenekin: animalia batzuek denak dituzte, beste batzuek bakar batzuk eta, azkenik, beste zenbaitzuek bakararra besterik ez, beharrezkoena, ukimena, alegia (Aristoteles: *Arimari buruz*).

<b>1. Laburpena eta definizioak</b>	(Guztira 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du <i>entelekia bat</i> terminoak?	(0,75 puntu)
c) Zer esan nahi du Aristotelesek <i>potentzia espekulatiboa</i> dioenean?	(0,75 puntu)
d) Esan zer esan nahi duen esaldi honek: <i>sentimenaren zerizana eta iritzia emateko ahalmenaren zerizana desberdinak dira</i>	(0,75 puntu)
<b>2. Garatu gai hau:</b> Antropologia aristotelikoa (gorputza eta arima, arima motak e.a.).	(3 puntu)
<b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b>	(Guztira 3 puntu)
a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa.	(Puntu 1)
b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

**OHARRA.** Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.





## FILOSOFIAREN HISTORIA (IRAKASGAI KOMUNA)

HAR EZAZU A AUKERA, B AUKERA EDO C AUKERA, ETA EGIN OSORIK

### B AUKERA: SAN AGUSTIN

Bi maitasun izan ziren, beraz, bi hiriren sortzaileak; Jaungoikoa mespretxatzerainoko norberaren maitasuna, lurrekoa eta zerukoa, berriz, norbera mespretxatzerainoko Jaungoikoaren maitasuna. Lehenengoak bere buruaren gorazarre egiten du; bigarrenak Jaungoikoa goresten du. Hura gizakien aintzaren atzetik dabil; honek, ostera, kontzientziaren testigu den Jaungoikoarengan aurkitu du aintza gorena. Hura bere ospean harropuzten da; honek bere Jaungoikoari esaten dio: *Zu zara, Jauna, nire ohore; zuk didazu burua jasotzen*. Batean aginte irrikaren uztarripean menderaturik aurkitzen dira printzeak eta nazioak; bestean elkar maitasunean eta elkarren zerbitzuan gobernariak aholku ematen dute eta azpikoek men egiten dute. Hark indarra du gogoko bere gizaki boteretsuetan; honek bere Jaungoikoari esaten dio: *Maite zaitut, Jauna; zu zara nire indarra*.

Horregatik hiri hartan gizakien arabera bizi diren bertako jakintsuek euren gorputzearen ondasunak bilatzen dituzte, edo euren arimarenak, edo batarenak zein bestearenak; eta Jaungoikoa ezagutzera iritsi direnek ez diote aintzarik, ez eskerrik eman Berari dagokion bezala; baizik **arrazoibide hutsaletan galdu dira** eta beren adimen zentzugabea ilundu egin zaie. Beren buruak zuhurtzat edukiz, hots, arrokeriaz euren jakiturian oilarturik, ergel bihurtu dira, eta Jaungoiko hilezkorraren aintza utzirik, gizaki hilkor, hegazti, lauoineko abere eta narrastien irudietara jo dute. Era horretako irudiak gurtzera herria eraman baitzuten edo herriari jarraitu, eta **Egilearen ordeztu, egindakoak gurtu eta zerbitzatu**. Bedeinkatua bera beti.

Zeruko hirian, berriz, bizitza erlijioso da giza jakintza bakarra, gizakia artez egiazko Jaungoikoa gurtzera daramana, gizakiz eta aingeruez osaturiko santuen elkartasunean saria itxaroten, **Jaungoikoa guztietan guztia izan dadin** (San Agustin: *Jaungoikoaren Hiria*).

<b>1. Laburpena eta definizioak</b>	(Guztira 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du <i>arrazoibide hutsaletan galdu dira</i> esaldiak?	(0,75 puntu)
c) Zertaz ari da San Agustin <i>Egilearen ordeztu, egindakoak gurtu eta zerbitzatu</i> esaten duenean?	(0,75 puntu)
d) Zer esan nahi du <i>Jaungoikoa guztietan guztia izan dadin</i> esaldiak?	(0,75 puntu)
<b>2. Garatu gai hau:</b> Lurreko hiriaren eta zeruko hiriaren ezaugarriak eta interpretazioa.	(3 puntu)
<b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b>	(Guztira 3 puntu)
a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa.	(Puntu 1)
b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin. (Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa errepikatu gabe)	(2 puntu)

**OHARRA.** Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.





## FILOSOFIAREN HISTORIA (IRAKASGAI KOMUNA)

### HAR EZAZU A AUKERA, B AUKERA EDO C AUKERA, ETA EGIN OSORIK

#### C AUKERA: OCKHAM

##### **Egina egonik, kontraesanik ez duen oro egin dezake Jainkoak.**

Kontuan izan ezazue ez dela esaten **Jainkoak kontraesanik ez duen oro egin dezakeela**, orduan bere burua egiterik ere izango baitzuen. Hortaz, Hark (Jainkoak) ez du kontraesanik, zeren, egina egonik, kontraesanik ez duen oro egin baitezake, hots, “hau egina dago” proposizioaren aurrean kontraesanik ez dakarren oro.

Printzipio horretatik ondorioztatzen da **kausa eraginkorraren generoan bigarren kausak egin dezakeen oro gerta daitekeela**, zeren, egina egonik, kontraesanik ez duen oro egiterik baldin badu eta bigarren kausa batek ez badu kontraesanik duen gauzatarik bat ere egiterik, ondorioztatzen da Jainkoak bigarren kausak egin dezakeen oro egin dezakeela.

Printzipio horretatik beretik ondorioztatzen da eta hala dago ezarrita, Jainkoak, bere burua alboratuz, gauza guztiak egin eta kontserba ditzakeela, baldin eta gauza horietako bat ez bada bestearen esentziazko zatia eta gauza horietako bat ere ez bada Jainkoa. Bestela izango balitz, kontraesana izango litzateke bere burua eta beste zerbait aldi berean egingo balu, Jainkoa bera ez bailitzateke existituko. Hala da eta hala ikusten da Jainkoa dela izaki baten kausa eta izaki horretatik bestea ondorioztatzen dela eta hura gabe ez litzatekeela bestea izango.

Printzipio beretik ondorioztatzen da jainkoak betikotasunetik mundua egin dezakeela edo egin ahal izan zuela, horrek ez baitu kontraesanik (Ockham: *Teologiaren printzipioei buruzko tratatua*).

<b>1. Laburpena eta definizioak:</b>	(Guztira 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe.	(0,75 puntu)
b) Zer esan nahi du <i>Egina egonik, kontraesanik ez duen oro egin dezake Jainkoak?</i>	(0,75 puntu)
c) Esan zer esan nahi duen esaldi honek: <i>Jainkoak kontraesanik ez duen oro egin dezakeela</i>	(0,75 puntu)
d) Azaldu zer den <i>kausa eraginkorraren generoan bigarren kausak egin dezakeen oro gerta daitekeela</i> esaldiak aipatzen duen <i>bigarren kausa</i> hori .	(0,75 puntu)
<b>2. Garatu gai hau:</b> Jainkoaren guztiaahaltasuna eta askatasuna Ockham-en arabera	(3 puntu)
<b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b>	(Guztira 3 puntu)
a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa.	
b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo batzuek horri buruz esan dutenarekin.	(Puntu 1)
(Funtsezkoa da egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan esandakoa erreplikatu gabe) .	(2 puntu)

OHARRA. Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

